

¡EZ DAGO GAIZKI ESANA!

Aditzen ditut esanak
 egundañoko bakanak,
 ezin litezke askotan
 benetan artu abotan;
 ez guchi aldiz, baizik maiz
 zer esan ezik egon naiz
 bañan eziñik burutu
 estribillo bat det artu
 eta erantzuten detana
 da: ¡Ez dago gaizki esana!

Juanchok diyo: Senarra
 nayago nuke nik zarra;
 zarrak ainbeste birtute
 gizasemeak ez dute
 gaztea bada, jakiña,
 izan bear du ariña;
 pollita bada, gañetik,
 ez du paltako aukerik,
 eta batean ez dana.....
 ¡Ez dago gaizki esana!

Ezin supritu nezaken
 gauza da aditu besteren
 gatik murmurran izketan
 diyo Permiñek, benetan
 mingaiu gaiztoen sumiña
 ez da neretzat egiña;
 nayago nuke gelditu
 belarri bage, ez aditu
 iñori kentzen badana.....
 ¡Ez dago gaizki esana!

Neri iltzen bazait Klaudio
 bere emazteak au diyo:
 (Egin ezazuke parra,
 au du laugarren senarra)
 atsegin bage, triste, illun
 ez nuke iraungo sei egun.
 ¡Ay, ori gizon santua
 beretzat dago zerua
 deitzen badu bere gana.....
 ¡Ez dago gaizki esana!

Onofrek esan du beti:
 Ezkontzen banaiz iñoiz ni
 ez det artuko andrea
 diru askoren jabea.
 ¡Nola supritu nik lotza
 salduko banu biyotza!
 ¡Diru asko ta lorik ez
 beti lapurren bildurrez,
 egunoroko afana!.....
 ¡Ez zioz gaizki esana!